

Hortzaginetako Komunitate Zerbitzua

PADI – 2017

**EAEko haurren horzdura zaintzeari buruzko 118/90
Dekretuaren garapenaren urteko txostena.**


AURKIBIDEA

	Orrialdea
SARRERA.	2
2017. URTEKO EMAITZAK	
1.- Erabilera.	5
2.- Maiztasuna.	9
3.- Hortzen asistentzia.	11
4.- Fakturazioa.	18
UMEEN HORTZAGINEN OSASUNA.	20
Azterketa epidemiologikoak (1988 – 1998 – 2008)	
EGOERAREN ANALISIA.	23
ONDORIOAK.	25
ERANSKINAK.	
I: Erabilera 2017an; lurraldeka.	27
II: Erabilera 2017an ; erakunde sanitarioka.	28
III: Erabilera 2017an; udalerrika	31

SARRERA

2017. urtean, 28 urte bete ditu PADI asistentzia-sistemak, Haurren Aho eta Hortzen Osasunaren programak, apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak martxan jarri zuenetik. Lehen irudian, grafikoki ageri da zenbat haur atenditu diren 1990-2017 epean.

1. irudia. PADiren ezarpena eta garapena (1990 – 2017 epean).




1988ko azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren %82k txantarra zutela. Batez beste lau eta erdiak baino gehiago tratatu gabeak zirela. Lesio konplexuak zituztenei (batez beste zortzi gainazalean) betirako erasango zien, oro har, helduen hortzen osasunean. Osakidetzak haurren hortzen atentzioan segurantzarik ematen ez zuenez, batez ere familiarik behartsuenei gehiago kostatzen zitzairen haurren hortzak zaintzea.

Gauzak horrela, Osasun Sailak lehentasunezko interbentzio-alortzat jarri zuen haurren hortzen osasuna. Geroztik, uraren fluorizazioaren eskema ezarri da (49/1988 Dekretua), eta, horrekin, herritarren %78rengana iritsi da bi hamarkadatan; gainera, kalitatezko hortzen asistentzia-sistema bat ezarri da (PADI), eta, haren bidez, haur guztiei ziurtatzen zaie aldikako atentzioa behin betiko hortzak ateratzean eta handitzean. Osasun-politika honen helburua da haurrak osasuntsu haztea.

2017. urteko PADiren txosten honetan, datu hauek datoz: demografia, erabilera, asistentzia, kostuak eta zein eboluzio izan duten 2008tik 2017ra. Hortik kanpo, hortzen osasunaren 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikotik ateratako informazio konparatua dator, baita gaurko ereduaren analisisa ere.

2. irudia. PADiren asistentziarako eskubidea izan duten 7 eta 15 urte bitarteko haur kopuruaren eboluzioa




Aldaketa demografikoek, bereziki aurreko urteetan izandako jaiotza kopuruek, eragina dute ondoko urteetan PADirako eskubidea duten 7 eta 15 urte bitarteko haur kopuruan. PADIn sartutako haur kopurua txikitu egin zen hasierako fasean; gero egonkortu egin zen, eta, 2. irudian ageri den epean, 2005tik hona, goraka joan da.

Aurreko urteetan, 7 urteko kohortearen haur kopurua (sarrerako kohortearena) handiagoa izan da 15 urteko kohortearena (irteerako kohortearena) baino. Ondorioz, PADirako eskubidea duten haurren kopurua 40.446raino igo da 2008tik 2017ra. Hurrengo urteetako iragarpenen arabera, 2017erako alegia, igoerari eutsiko zaio; urteko, 4.000 haur inguru gehiago. Iragarpena betetzen bada, hamar urtean, 45.000raino igoko da PADIn sartutako 7 eta 15 urte bitarteko haurren kopurua.

PADIn urtero sartzen den xede-populazioak markatzen du zenbat haurrek erabiliko duten, eta zuzenean eragiten du, urtero, sistemaren kostu ekonomikoetan. Beste aldetik kapitazio ordainketa sistemaren bitartez (%97,5) datorren urterako aurrekontuak egitea ahalbideratzen du.

Hortzen asistentzia emateko, familiako dentista asko erabiltzen dira, hala Osakidetzako profesionalak nola pribatu hitzartuak; horiek bermatzen dute PADiren eskuragarritasuna eta onargarritasuna. Ordu-tik hona izan diren administrazio-prozesuak 1990ean diseinatu zituen Osakidetzako Hortzagnetako Komunitate Zerbitzuak, eta hark kudeatzen ditu geroztik.

3. irudia. PADiren administrazio-prozesuak



Urte hauetan, batetik haurren atentziorako protokolo klinikoak eta bestetik hitzartuetako dentistek emandako asistentzia kapitazio bidez ordaintzeko sistema eraginkorrak izan dira zainketa egokiak sustatzeko. Era berean, sistemaren kostu ekonomikoa mantendu egin da planifikazioan iragarri ziren parametroetan.


Emandako asistentziaren ondorioz, prebentzioz jokatuta eta osatze-tratamendu beharrezkoak aplikatuta, nabarmen hobetu da gure haurren eta gazteen hortzen osasuna. 2008ko azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren %61ek ez duela txantxarrik izan; adin horretan, txantxarraren batez bestekoa 0,9 izaten da, eta gainazal erasanen kopurua txikitu egin da 1,2ra arte. PADiren osasun-emaiza bikaina izanagatik (uraren fluorizazio-eskemak eta hortzak garbitzeko orduan izan den hobekuntzak eragin nabarmena izan dute horretan), ez dugu ahaztu behar 2008ko azterketa horrek era berean erakusten duela txantxarrak eragindako lesioen lautik batek ez duela tratamendurik jaso 12 eta 14 urte arteko umeengan.

2017. URTEKO EMAITZAK.

1. Erabilera.

4. irudian, grafikoz eta zenbakiz erakusten da 2017. urteko PADiren erabilera, asistentzia-sarearen arabera, eta nolako eboluzioa izan duen 2008tik. 2017an, EAEn bizi diren 7 eta 15 urte bitarteko haurren kopurua 194.752raino igo zen. Horietatik, 129.290ek jaso zuten PADiren hortz-atentzioa.

4. irudia. PADIn atenditu zuten haur kopurua, urteko eta asistentzia-sareko.




Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Osakidetza	8.132	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959
Hitzartuak	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331
PADI	101.189	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290
Ez atendituak	53.117	55.221	57.538	61.709	59.557	60.819	60.634	61.678	63.272	65.462
Populazioa	154.306	159.094	164.745	170.510	174.565	179.800	182.329	185.703	190.618	194.752

2008tik 2017ra, PADik atenditutako haur kopuru osoa handitu egin da urtez urte; 2008an, 101.189 ziren, eta 2017an, 129.290. 28.101 haur gehiago izan ziren iaz, 28.274 haur gehiagok jotzen baitute hitzartutako asistentziara. Aldi berean, Osakidetza baliabideen asistentzia txikitu egin da; 173 erabil-tzaile gutxiago hartu zituen iaz. EZ-atenditutako haurren kopurua 65.462raino igo zen 2017an.

5. irudian, PADiren 2017ko erabilera (kuota) ehunekoa ageri da, eta 2008tik izan duen eboluzioa, Osakidetzako/hitzartutako asistentzia-sarearen arabera.

2017an, hitzartutako dentistek atenditu zituzten asistentzia -eskubidea duten 100 haurretatik 62; Osa-
kidetzako dentistek, 4; eta atentziorik Gabe gelditu ziren 34.

5. irudia. Atenditutako haurren ehunekoa, urteko eta asistentzia-sareko.




Urtea	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Osakidetza	5%	5%	5%	5%	5%	5%	5%	5%	4%	4%
Hitzartuak	60%	60%	60%	59%	61%	61%	62%	62%	62%	62%
EZ atendituak	34%	35%	35%	36%	34%	34%	33%	33%	33%	34%
Atendituen %	65,58%	65,29%	65,07%	63,81%	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%

Aztertutako epean Osakidetzako haur atendituen kopurua ehuneko 1,5 gutxitu den bezala (%5,3tik %
%4,09ra jaitsi da), ez da halako jaitsierarik izan hitzartutakoetan: epearen hasieran baino %2 gehiago
izan dira 2017an.

2017an urteko estaldura portzentaia 0,42 jaitsi zen 2016tik. Epe horretan, xede populazioko hiru ume-
tik bik urtero erabili dute PADI. Urte hauetako eboluzioak erakusten du oso egonkorra izan dela eta
gora behera txikikoa. Hala, 2008an urteko estaldura %66,58 izan ba zen, 2017an 66,39ri eutsi dio

6 irudian PADIn estalduraren (kuotaren) urtez urteko ehunekoa dator, lurraldeka.

6. irudia. PADIn lurralde bakoitzean atenditutako haurren ehunekoa.



Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
ARABA	64,10%	63,97%	63,21%	61,74%	64,28%	64,13%	66,71%	66,57%	66,18%	65,73%
GIPUZKOA	60,57%	61,23%	61,54%	60,23%	62,89%	62,78%	62,36%	62,01%	63,09%	63,23%
BIZKAIA	69,43%	68,40%	67,97%	66,80%	68,33%	69,09%	69,73%	70,12%	69,54%	68,75%
EAE	65,58%	65,29%	65,07%	63,81%	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%

Bizkaia da PADi martxan jarri zenetik estaldura handiena izan duena; urte bakoitzaren balantze orokorra igo egin dute demografiak (EAEko haurren %51 daude lurralde horretan), koadro fakultatibo ugariak eta emaitza onak. 2017an, Bizkaia eta Arabak 0,79 eta 0,45 puntu zein bere estalduran gutxitu du. Gipuzkoako estaldurak ordeaz 0,14 puntu handitu du.

Aztertutako epeari dagokionez, ikusten da urteko estalduraren ehunekoaren aldea murriztu egin dela; hasieran 8,8 puntukoa bazen, azken urtetan 5,5 puntukoa izan da. Izan ere, Arabako eta Gipuzkoako adierazleak handitu egin dira, eta Bizkaikoak aldiz, mantendu izan dira. Hala ere Araba eta Bizkaia beheranzko joera erakusten dute hiru azken denboraldietan.

I eta II tauletan ikus daiteke PADIN eta 7 eta 15 urte bitarteko zenbat haurrek erabili duten 2017an Osakidetzako asistentzia sanitarioa osatzen dute zerbitzu- erakundeetako bakoitza. Datuak asistentzia-sarearen arabera datoz, Osakidetza/Hitzartua.

I.taula. PADIn erabileraren 2017an, asistentzia-sarearen arabera

Osakidetzako erakunde sanitario bakoitzean

	Erakunde Sanitarioa	POPULAZIOA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI	KUOTA
1	BARRUALDE-GALDAKAO - ESI	27.505	323	19.367	19.690	71,58%
2	DEBA BARRENA - ESI	6.556	636	4.047	4.683	71,43%
3	URIBE - ESI	20.216	29	14.351	14.380	71,13%
4	BARAKALDO-SESTAO - ESI	10.312	180	6.996	7.176	69,59%
5	EZKERRALDE-ENKARTERRI - ESI	13.404	77	9.064	9.141	68,19%
6	TOLOSALDEA - ESI	6.627	1.111	3.404	4.515	68,13%
7	ARABA - ESI	25.723	695	16.356	17.051	66,29%
8	BILBO-BASURTO - ESI	27.846	169	17.755	17.924	64,37%
9	DONOSTIALDEA - ESI	32.170	2.251	18.239	20.490	63,69%
10	BIDASOA - ESI	7.677	1.239	3.452	4.691	61,10%
11	GOIERRI - UROLA G. - ESI	9.681	1.109	4.674	5.783	59,73%
12	DEBA GOIENA - ESI	5.822	108	3.227	3.335	57,28%
13	ARABAKO ERRIOKA - ESI	1.213	32	399	431	35,53%
	E A E	194.752	7.959	121.331	129.290	66,39%

II taula. Osakidetzaren/Hitzartuaren ehunekoak, erakunde sanitarioa, atenditutako guztiak kontuan hartuta

	Erakunde Sanitarioa	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI
1	BIDASOA - ESI	26,41	73,59	100%
2	TOLOSALDEA - ESI	24,61	75,39	100%
3	GOIERRI-UROLA G. - ESI	19,18	80,82	100%
4	DEBA BARRENA - ESI	13,58	86,42	100%
5	DONOSTIALDEA - ESI	10,99	89,01	100%
6	ARABAKO ERRIOKA - ESI	7,42	92,58	100%
7	ARABA - ESI	4,08	95,92	100%
8	DEBA GOIENA - ESI	3,24	96,76	100%
9	BARAKALDO-SESTAO - ESI	2,51	97,49	100%
10	BARRUALDE-GALDAKAO - ESI	1,64	98,36	100%
11	BILBO-BASURTO - ESI	0,94	99,06	100%
12	EZKERRALDE-ENKARTERRI - ESI	0,84	99,16	100%
13	URIBE - ESI	0,20	99,80	100%
	E A E	6,16	93,84	100%

2017an, erakunde sanitario guztietan, nabarmen egon zen hitzartutako asistentzia Osakidetzak bere baliabideekin eskaintaikoaren gainetik. PADIn atentzioaren %93,8 hitzartutako dentistek eman zuten. Osakidetzako erabilien izan diren kontsultak Gipuzkoakoak izan dira orokorki, Deba Goiena salbu. Bizkaiko eta Arabako klinika publikoak ez dira iristen erabiltzaileen %5 kopurura. Beste muturrean Barrualde, Deba Barrena eta Uribeko ESlek %71 kopurua gailendu zuten.

III taula: Maiztasuna 2017an. Erabilera konstantea, tartekakoa eta batere gabekoa, kohorteka.

2017 urtea	POPULAZIOA	KONSTANTEA	TARTEKA	BATERE EZ
15 urte	19.735	5.698	12.569	1.468
14 urte	20.847	6.564	12.655	1.628
13 urte	21.345	7.230	12.241	1.874
12 urte	21.319	8.258	10.954	2.107
11 urte	21.572	8.876	10.293	2.403
10 urte	21.872	9.701	9.342	2.829
9 urte	22.655	10.969	7.988	3.698
8 urte	22.821	12.051	5.437	5.333
7 urte	22.586	14.803	0	7.783

2017 urtea	POPULAZIOA	KONSTANTEA	TARTEKA	BATERE EZ
15 urte	100%	28,9%	63,7%	7,4%
14 urte	100%	31,5%	60,7%	7,8%
13 urte	100%	33,9%	57,3%	8,8%
12 urte	100%	38,7%	51,4%	9,9%
11 urte	100%	41,1%	47,7%	11,1%
10 urte	100%	44,4%	42,7%	12,9%
9 urte	100%	48,4%	35,3%	16,3%
8 urte	100%	52,8%	23,8%	23,4%
7 urte	100%	65,5%	-	34,5%

2017ko irteerako kohortean, 15 urtetakoetan, laurden bat baino gehiago joan zen PADIko dentisten-gana (%28,9) estaldura ematen den bederatzi urteetan.

2017an, 15 urteko haurren % 92,6k erabili du PADI gutxienez behin, 7 urtetatik hona. Horien batez bestekoa (erabilera konstantea zein tartetakoa) bederatzi urte posibleetatik 6,4 da 9 posibleetatik. Tarteka erabili duten haurrena, %63,7rena, bederatzi urte posibleetatik 5,3 izan zen.

IV. taulan kohorte bakoitzaren erabilera deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemen erabilera gutxitzen den haurren adina gora doan heinean. Kasu guztietan, gutxiago erabiltzen dute programa 15 urtekoek 7 urtekoek baino.

IV taula. Kohorteen erabilera, 2008tik 2017ra.

Urteak >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Kohort. 1993 >	57,57									
Kohort. 1994 >	60,89	58,01								
Kohort. 1995 >	63,93	61,18	59,04							
Kohort. 1996 >	66,79	63,75	61,55	57,64						
Kohort. 1997 >	67,50	66,24	64,11	60,91	60,74					
Kohort. 1998 >	68,07	67,49	65,24	62,65	62,55	60,45				
Kohort. 1999 >	68,36	67,95	67,46	65,14	64,52	62,71	61,51			
Kohort. 2000 >	68,44	66,77	67,05	65,57	66,61	64,65	64,12	61,70		
Kohort. 2001 >	67,28	68,25	67,19	66,24	67,55	66,90	65,76	64,74	62,88	
Kohort. 2002 >		66,44	67,09	65,71	68,18	68,66	67,64	66,82	65,39	63,40
Kohort. 2003 >			65,61	65,68	67,70	68,44	68,73	68,03	66,55	64,27
Kohort. 2004 >				63,56	67,26	67,38	68,90	68,55	67,92	66,41
Kohort. 2005 >					66,61	68,48	68,11	69,05	68,87	67,78
Kohort. 2006 >						66,71	68,43	68,11	68,77	68,35
Kohort. 2007 >							66,59	67,75	68,10	69,02
Kohort. 2008 >								65,69	68,25	67,72
Kohort. 2009 >									64,11	64,70
Kohort. 2010 >										65,54
PADI >	65,58	65,29	65,07	63,81	65,88	66,17	66,74	66,79	66,81	66,39

Irteerako kohorteen estalduraren ehunekoa igo egin da epe horretan (2008ko %57,6tik, 2017ko %63,4raino); sarrerako kohorteara, berriz, jaitsi (2008ko %67,3tik 2017ko 65,5raino)

Adin handiagoko kohortek PADI gutxiago erabiltzen dutenez, beharbada horregatik dago ehuneko konstante bat (lautik bat) tratatu gabeko lesioekin 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.

3. HORTZEN ASISTENTZIA.

PADlren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak jarri behar zaizkiela. Era berean, motibo medikoengatik, biologikoengatik edo sozialengatik arriskupean daudela kontsideratzen diren haurrei ere jarri behar zaizkie fisura-ixtekoak, oklusio-gainazaletan txantxarra ateratzea prebenitzeko.

2017an emandako asistentzia, V. eta VI. tauletan dator. Bi tauletan ikusten da behin betiko hortzen asistentziaren bolumen osoa eta horren ehunekoa (profila). V. taulak Asistentzia Orokorra irudikatzen du; VI. taulan, berriz, traumatismoengatik edo malformazioengatik ebakortzetan Asistentzia Gehigarria jaso dutenak datoz.

V. taula. PADlren Asistentzia Orokorra 2017an.


PADI - 2017	KOP.OSOA	PROFILA
Berrikuspenak	129.290	100,00
Fisura-ixteak	17.260	13,35
Obturazioak	19.999	15,47
Erauzketak	1.367	1,06
Pulpa-trat.	366	0,28

VI. taula. PADlren Asistentzia Gehigarria 2017an.

PADI - 2017	KOP. OSOA	PROFILA
Asist. Gehigarriko haurrak	1.654	1,28
Obturazioak	623	0,48
Berregiteak	1.440	1,11
Apikoformazioak	19	0,01
Endodontziak	136	0,11
Koroak	36	0,03
Erauzketak	18	0,01
Mantentzaileak	4	0,003

2017an PADlren bitartez jasotako asistentzian, atenditutako haurrei egindako prozedura prebentiboak eta erreparatzaileak datoz.

7. irudia. 2017an ehun haurretatik zenbaterik jaso duten Asistentzia Orokorra




Adina >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	
Kohorteak >	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002	GUZTIRA
Berrikusketak	14.803	14.765	15.342	15.097	14.745	14.451	14.176	13.398	12.513	129.290
Fisura-ixteak	4.254	3.352	2.198	1.483	1.229	1.183	1.350	1.141	1.070	17.260
Obturazioak	1.093	1.411	1.798	1.915	2.183	2.198	2.754	3.006	3.641	19.999
Erauzketak	137	151	184	174	197	168	167	112	77	1.367
Pulpa trat.	11	30	34	27	48	41	47	37	91	366

Adina >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	
Kohorteak >	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002	GUZTIRA
Berrikusketak	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
Fisura-ixteak	28,74	22,64	14,85	10,02	8,30	7,99	9,12	7,71	7,23	13,35
Obturazioak	7,38	9,56	11,72	12,68	14,81	15,21	19,43	22,44	29,10	15,47
Erauzketak	0,93	1,02	1,20	1,15	1,34	1,16	1,18	0,84	0,62	1,06
Pulpa trat.	0,07	0,20	0,22	0,18	0,33	0,28	0,33	0,28	0,73	0,28

PADIren protokolo klinikoetan datorren ereduaren arabera eman zaio kohorte bakoitzari Asistentzia Orokorra, eta adin txikikoetan, gehiago egiten dira fisura-ixteak obturazioak baino. Erauzketak eta pulparen tratamenduak maizago egiten zaizkie adin handiagoko haurrei, baina adin guztietan dira kopuru nahiko apalak.

8. irudia.Haurrak jasotako Asistentzia Orokorren eboluzioa, ehunekoetan: 2008-2017




Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	101.189	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290
Fisura -ixtea	36.232	36.439	35.325	30.459	25.410	22.600	18.539	19.368	17.689	17.260
Obturazioak	20.952	18.563	20.697	19.862	21.402	21.062	20.185	20.210	20.590	19.999
Erauzketak	458	454	493	541	894	853	995	1.227	1.302	1.367
Pulpa trat.	401	351	340	292	430	394	299	372	460	366

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
Fisura -ixtea	35,80	35,08	32,95	28,00	22,09	18,99	15,23	15,92	13,89	13,35
Obturazioak	20,70	17,87	19,31	18,26	18,61	17,70	16,59	16,61	16,17	15,47
Erauzketak	0,45	0,44	0,46	0,50	0,78	0,72	0,82	1,01	1,02	1,06
Pulpa trat.	0,39	0,34	0,32	0,27	0,37	0,33	0,25	0,31	0,36	0,28

Urte bakoitzean emandako Asistentzia Orokorren bolumen osoa eta profila jaitsiz joan da 2008tik 2017ra, bai fisura-ixteen arloan bai obturazionenean. 2017an PADIn emandako asistentzia orokorraren profila aurreko urteetako eboluzioaren jarraipena da, eta ikusten da aldea dagoela Osakidetza sarean eta hitzartuenen profilen artean.

9.irudia. 2017an emandako Asistentzia Orokorra; Osakidetzaren/Hitzartuen sareka




PADI - 2017	Osakidetza	Hitzartuak	GUZTIRA
Berrikusketak	7.959	121.331	129.290
Fisura-ixteak	3.431	13.829	17.260
Obturazioak	2.571	17.428	19.999
Erauzketak	121	1.246	1.367
Pulpa trat.	54	312	366


PADI - 2017	Osakidetza	Hitzartuak	GUZTIRA
Berrikusketak	100,00	100,00	100,00
Fisura-ixteak	43,11	11,40	13,35
Obturazioak	32,30	14,36	15,47
Erauzketak	1,52	1,03	1,06
Pulpa trat.	0,68	0,26	0,28

9. irudian, zera ageri da: 2017an Osakidetzako fakultatiboek eta hitzartuetako dentistek emandako Asistentzia Orokorren profila, 11. eta 12. Irudiek, berriz, erakusten dute asistentzia-sare bakoitzean zer-nolako garapena izan duen Asistentzia Orokorrak, 2008tik 2017ra.

10. irudia. Osakidetzaren Asistentzia Orokorren garapena 2008-2017.



11. irudia. Hitzartuetako Asistentzia Orokorren garapena, 2008 - 2017



VII. eta VIII. tauletan, hurrenez hurren datoz Osakidetzako baliabideen eta hitzartuetako dentisten bitartez PADIn emandako Asistentzia Orokorren guztizkoen eta profilen zenbakiak, 2006tik 2017ra. 10. eta 11. irudiek informazio grafikoa osatzen dute.

VII. taula. Osakidetzaren Asistentzia Orokorren garapena, 2008-2017.

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	8.132	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959
Fisura-ixteak	7.119	6.433	5.694	4.101	4.152	4.701	3.270	3.760	2.755	3.431
Obturazioak	2.683	2.169	2.359	1.970	2.398	2.709	2.308	2.423	2.203	2.571
Erauzketak	124	97	92	107	137	127	117	117	109	121
Pulpa trat.	85	73	70	40	48	93	65	59	84	54

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Fisura-ixteak	87,54	79,06	67,25	51,00	51,75	55,73	39,54	44,37	33,07	43,11
Obturazioak	32,99	26,66	27,86	24,50	29,89	32,11	27,90	28,59	26,45	32,3
Erauzketak	1,52	1,19	1,09	1,33	1,71	1,51	1,41	1,38	1,31	1,52
Pulpa trat.	1,05	0,90	0,83	0,50	0,60	1,10	0,79	0,70	1,01	0,68

VIII. taula. Hitzartuetako Asistentzia Orokorren garapena, 2008-2017.

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331
Fisura-ixteak	29.113	30.006	29.631	26.358	21.258	17.899	15.269	15.608	14.934	13.829
Obturazioak	18.269	16.394	18.338	17.892	19.004	18.353	17.877	17.787	18.387	17.428
Erauzketak	334	357	401	434	757	726	878	1.110	1.193	1.246
Pulpa trat.	316	278	270	252	382	301	234	313	376	312

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Berrikusketak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Fisura-ixteak	31,29	31,34	30,01	26,16	19,87	16,19	13,46	13,51	12,54	11,40
Obturazioak	19,63	17,12	18,57	17,76	17,76	16,60	15,76	15,39	15,44	14,36
Erauzketak	0,36	0,37	0,41	0,43	0,71	0,66	0,77	0,96	1,00	1,03
Pulpa trat.	0,34	0,29	0,27	0,25	0,36	0,27	0,21	0,27	0,32	0,26

Bi sareetan Osakidetzan eta hitzartuan ematen den asistentziak oso profil diferenteak dituzte. Osakidetzan, hiru aldiz fisura-ixte gehiago dago sare hitzartuan baino. Era berean, Osakidetzako dentistek atenditutako umeei obturazio, erauzketa eta pulpa-tratamendu gehiago egin behar izan zaizkie, eta, hala, ikusten da sare publiko hori konplexutasun mediko eta sozial handiagoko erabiltzaileek erabili dutela.

IX. eta X. taulek PADiko asistentziaz dagoen informazioa osatzen dute. IX. taulan ematen dira Asistentzia Gehigarriari dagozkion datuak, 2008-2017 epean.

IX. taula. PADIn emandako Asistentzia Gehigarriaren garapena, 2008-2017.

Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Asist. Gehigarriko haurrak	1.846	1.812	1.904	1.826	1.635	1.626	1.644	1.636	1.663	1.654
Obturazioak	850	795	823	682	658	623	623	620	542	623
Berregiteak	1.499	1.513	1.668	1.666	1.401	1.427	1.415	1.413	1.522	1.440
Apikoformazioak	85	89	56	52	41	23	18	17	23	19
Endodontziak	204	220	206	172	154	158	141	144	143	136
Koroak	29	18	38	49	45	41	58	30	29	36
Erauzketak	32	36	28	35	24	31	17	16	18	18
Mantentzaileak	10	16	14	10	8	8	13	3	10	4
Urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Asist. Gehigarriko haurrak	1,82	1,74	1,78	1,68	1,42	1,37	1,35	1,32	1,31	1,28
Obturazioak	0,84	0,77	0,77	0,63	0,57	0,52	0,51	0,50	0,43	0,48
Berregiteak	1,48	1,46	1,56	1,53	1,22	1,20	1,16	1,14	1,20	1,11
Apikoformazioak	0,08	0,09	0,05	0,05	0,04	0,02	0,01	0,01	0,02	0,01
Endodontziak	0,20	0,21	0,19	0,16	0,13	0,13	0,12	0,12	0,11	0,11
Koroak	0,03	0,02	0,04	0,05	0,04	0,03	0,05	0,02	0,02	0,03
Erauzketak	0,03	0,03	0,03	0,03	0,02	0,03	0,01	0,01	0,01	0,01
Mantentzaileak	0,01	0,02	0,01	0,01	0,01	0,01	0,01	0,00	0,01	0
PADIN artatutako haurrak	101.189	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290

X. taulan, 2017an Zerbitzu Erakunde bakoitzeko haurrek jasotako Asistentzia Orokorren profila ageri da, bai Osakidetzako dentistek bai hitzartuetakoek emandakoa

X. taula. 2017an emandako Asistentzia Orokorren profila; zerbitzu-erakundeka.


Erak. Sanitarioa>	ARA	EZK	URI	DON	A-D	DEB	BID	GOI	B-S	B-G	B-B	R-A	TOL	CAPV
Berrikusketak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Fisura-ixteak	7,79	9,70	11,80	11,73	10,04	10,23	14,24	5,41	22,12	17,46	17,61	13,69	20,11	13,35
Obturazioak	15,70	11,73	8,78	16,02	19,67	23,25	17,20	25,09	12,88	17,24	12,03	54,29	21,99	15,47
Erauzketak	1,68	0,59	0,48	0,87	0,93	2,67	0,70	0,66	1,11	1,20	0,72	15,55	0,86	1,06
Pulpa trat.	0,21	0,19	0,18	0,31	0,18	0,45	0,47	0,36	0,40	0,24	0,20	1,39	0,75	0,28

4. Fakturazioa.

2017. urteko aurrekontuetan, PADIrako hitzartutako familia-dentistek 5.258.804 euro fakturatu dizkiote Osasun Sailari; 44,34 euro haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik, 5.133.398 euro, %97,6, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira; besteak beste, hortzen azterketak, fisura-ixteak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak; eta 125.406 euro, %2,4, Asistentzia Gehigarriaren kontzeptupean doaz, hau da, ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen tratamenduetan


12. irudia. PADIrako hitzartutako asistentziaren kostuaren eboluzioa; milioi eurotan.



Aurrekontu urtea >	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Asistentzia Orokorraren kostua	3.875.026	4.072.696	4.167.299	4.242.419	4.496.699	4.762.590	4.845.719	4.935.137	5.043.695	5.133.398
Asistentzia Gehigarriaren kostua	143.226	146.136	156.278	149.622	131.542	143.424	149.450	137.855	131.895	125.406
Hitzartutako guztizkoa	4.018.252	4.218.832	4.323.577	4.392.041	4.628.241	4.906.014	4.995.169	5.072.992	5.175.590	5.258.804
Hitzartuta artatutako haurrak	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331
Haur bakoitzaren kostua urteko	43,17	44,07	43,79	43,59	43,26	44,38	44,04	43,90	43,49	43,61
Kapitazioa, kostuaren %	96,5%	96,5%	96,4%	96,6%	97,2%	97,1%	97,0%	97,3%	97,5%	97,6%
Hortzen itema, kostuaren %	3,6%	3,5%	3,6%	3,4%	2,8%	2,9%	3,0%	2,7%	2,5%	2,4%

13. irudian, Asistentzia Orokorren irabazien garapena dator (kapitazioa haur bakoitzeko/urteko), 2008ik 2017ra. 2007an, adin handiagoko kohorteetarako ordainketa bereizia egiten hasi zen.

13. irudia. Asistentzia Orokorrerako irabazien garapena (kapitazioa); eurotan.



Osakidetzan, PADIn ari diren familiako dentistek 347.160 euro fakturatu dituzte 2017. urtean, Osasun Sailaren bitartez, bakoitzaren Erakunde Zerbitzuetako Kontratu Programaren bitartez; 43,6 euro haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik, 338.387 euro, %97,5, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira; besteak beste, hortzen azterketak, fisura-ixteak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak, eta 8.773, %2,5, Asistentzia Gehigarriaren kontzeptupean doaz; hau da, ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen tratamenduetan.


Asistentzia- Sarea	HIZARTUA	OSAKIDETZA
Asistentzia orokorra	5.133.398 euro	338.387 euro
Asistentzia gehigarria	125.406 euro	8.773 euro
Asistentzia guztizkoa	5.258.804 euro	347.160 euro
Haur artatuak	121.331 haur	7.959 haur
Euro / Haur	43,34 euro / haur	43,61 euro / haur
Kapitazioaren kostea %	97,6 %	97,5 %
A. gehigarriaren kostea %	2,4 %	2,5 %

UMEEN HORTZAGINEN OSASUNA. AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK 1988, 1998 eta 2008.

1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoei OME metodologia erabilita EAEko haurren hortzen osasunaren garapena ebaluatzeko eginak oso hobekuntza handia erakusten dute lehen hamar urteetan (1988-1998), eta jarraipena izan dute ondoko hamar urteetan (1998-2008). Eusko Jaur-laritzako Osasun Sailak ezarri zuen hortzen osasunaren politika, duela hogeit hamar urte, eta orain, haurrek txantxarra gutxien duten herrialdeetako bat da.

Nabarmentzekoa da bi indizeetan (CAOD eta CAOS) nolako hobekuntza izan den, asko gutxitu bai-tira, kopuruz eta konplexutasunez, txantxarren lesioak; horrenbestez, tratamenduak ere gutxitu egin dira, eta, konponketen ondorioz, hortzen batez besteko bizitza luzatu egin da. Datu hori eta txan-txarrik gabeko haurren ehuneko handia (CAO=0, 14 urtekoek %61 2008ko azterketan) aukera pa-regabea da belaunaldi berriek hortzen eta norbere osasun hobez gozatzeko helduaroan


14. irudia. CAOD indizea 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.



Gure haurren aho osasunaren maila gure inguruko europar herrikoarekin konparatzearen , 12 urteko kohortearen CAOD erakuslea hautatzen dugu. Herriarteko haurren aho osasunaren datuak konpara-tzeko adostutako adina baita. Hala hor honako CAOD erakusle hauek: *Dinamarka* = 0,4 (2014); *Alemania* = 0,5 (2014); *Espainia* = 0,7 (2015); *Suedia* 0 0,8 (2011); *U.K.* = 0,8 (2013); *Frantzia* 0 1,2 (2014); *Portugal* = 1,2 (2014); *Italia* = 1,2 (2012).


2018. urtean berriro antolatuko da hurrengo ikerketa epidemiologikoa gure haur-ikasle aho osasuna-ren egoeraz jabetzeko eta bide batez azken hamarkada honetan izan duen garapena egiaztatzeko.

15. irudia. CAOS indizea 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.




CAOS indizea hortz-haginetako kaltetutako azaleen kopuruari dagokio. Haren jaitsiera, beharrezkoak diren enpasteen zabalera zein zailtasun gabeziaren erakuslea da.

16. Irudia. Txantxarrik gabeko haurren ehunekoa (CAO=0), 1988an, 1998an, eta 2008an



Azken hamarkadan 12 urteko ehun ikasle populazio berrietatik 17k txantxar patologia ekidin zuten; eta 14 urteko ehun ikasle populazio berrietatik 20k lortu zuten txantxarra saihestea.

17. irudia. CAODen atalak, 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.



CAOD indizeko atalen garapenaren azterketan, 1988-1998 epean txantxar aktiboak asko gutxitu direla ikusten da, eta, horretarako, ez da obturazio kopurua igo behar izan. 1998an, erauzketen atala dagoeneko oso apala zen. 1998-2008 epean ere, hiru atalak, "txantxartua", "obturatua" eta "erauzia", asko gutxitu dira..

